



BERDINTASUN-POLITIKAK BULTZATZEKO NAZIOARTEKO BILTZARRA



Daniel Quintas

- ONDORIOAK: kopuruak, hitzak eta parte-hartzaile garrantzitsuen izenak
- Berdintasun-politikak, giza-eskubideak bermatzeko ezinbesteko inbertsioa
- Lorena Peñari ELKARRIZKETA: «El Salvadorreko emakumeek gure eskubideak odolarekin lortu ditugu»

Berdintasun-politikak, giza-eskubideak bermatzeko ezinbesteko inbertsioa

Orain dela hamahiru urte Aguascalientesen (Mexikon) ospatzen den Genero Estatistikari buruzko Mintegian, Ekonomia irakaslea den Lourdes Beneriaren hitzaldi magistrala entzuteko abagunea izan nuen, eta zinez inspiratzailea gertatu zitzaidan ez testuinguru honetan aipatuko nuela esan nion. Lourdesek esan zidan horrela egiten banuen, bere agurra eta gurekin ezin egon izateagatik duen pena helarazteko. Esanda eta eginda.

Lourdes Beneriak neoliberalismoan feminismoak izandako erakargarritasunari buruz hitz egin zuen, eta baieztatu zuen garai neoliberalak frogatu duela sistemak genero-berdintasunaren alderdi asko sustatu ditzakeela, baina beti desberdintasun sozial sakonak ezarritako mugen barruan.

Egia da, eta gainera kezkarria, garatutako herri kapitalistetan mugimendu feministak eskuratutako lorpen asko desberdintasun sozial garrantzitsuekin elkarbizi direla edo desberdintasun sozial horien gainean eraikitzen direla. Adibidez, pentsa dezagun gure gizarteak etxeko-zaintza eta etxeko-lana bermatzeko antolatutako duen estrategian: etxe askotan lan hori mantentzen da gehienetan emakumezkoa den pertsona bati esker, eta gure testuingururik hurbilenean, etorkina da, gutxi ordaindutako lana egiten du, gutxiago airtortzen zaio eta askotan lan erregularizatu gabea du.

DESBERDINTASUNAK AREAGOTZEN DITUZTEN NEURRIAK

Garatutako herri askotan gaur egun pairatzen dugun krisi ekonomiko eta finantzarioak Estatuak bultzatzen ditu doikuntza- eta murrizketa-neurriak ezartzera. Neurri horiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean ez laguntzeaz gain desberdintasun sozialak larriagotzen dituzte eta arriskuan jartzen dituzte borroka eta errebindikazio garrantzitsuei esker eskuratutako lorpenetako batzuk. Era berean, eskubide sozial eta laboral batzuek modu efektiboan egikaritzea mugatzen dute.

Gobernuen gehiengoak akats ikaragarria egiten du pentsatzean berdintasun-politikak luxuzko neurriak direla eta ez direla beharrezkoak ezta na-

hitaezkoak ere. Baina berdintasun-politikak ez dira kudeaketa publikoan alferrikako gastua, baizik eta ezinbesteko inbertsioa eta ahalegin etikoa, luzaroan errebindikatutako giza eskubideak bermatzeko beharrezkoak.

Krisi ekonomikorako gaur egungo erantzunak eskasiaren luzapena dakar soilik. Horregatik, Guy Standing ekonomialari britainiarrak bete-betean asmatzen du "precariado" hitza erabiltzen duenean sortzen ari den gizarte-klase berriaz jarduteko. Gizarte-klase horrek jende behartsuena barne hartzeaz gain maila ertaineko jende asko ere barne hartzen du. Kontzeptu berri honen perfil soziologikoan sakonduko bagenu, "prekariadoaren feminizazioaz" hitz egin ahal izango genukeen.

Non aurki ditzakegu krisitik irteteko erreferenteak? Badago Latinoamerikako herriak begiratzeko esaten duenik, laurogeigarren hamarkadako krisi ekonomiko eta finantziario ikaragarrietatik irtetea lortu baitzuten. Egia da gorestekoak direla beren mugimendu sozialak eta eskualde guztietan sortutako sareak. Sare horien artean emakume-elkarteetakoak daude, eta horiek gizarte- nahiz politika-mailan legediak sustatu ahal izan dituzte emakumeen eta gizonezkoen berdintasunaren alde. Era berean, gizarte- eta politika-ehuna sortu da, sexu-arrazoientatik sortzen diren diskriminazio-egoerekin sentikorra dena. Gizarte hauek ere, ezberdintasun sozial handiak era lizunetan maiz irauten dute ordea.

Munduan emakumeak jasaten dituzten borroketak, hilketak, harrikatzeak, ebaketa genitalak, pozoidurak edo Malala bezala, eskolara joateagatik pairatzen dituzten tiroketak ezin ditugu ahaztu. Kultura edo erlijiotik justifikatzen diren ekintzak dira. Giza eskubideen betetzea unibertsal eta orokorra izan dadin zaindu behar da, etnozentrismoan erori gabe, hori da zeharkatu behar ez den muga.

ALDAKETA ETA EGOKITASUN GARAIK

Berri onak ez direla, jakin badakit: giza eskubideen urraketa, desberdintasun sozial iraunkorrak, eskasia orokorra, guzti hori, emakumeentzako kostu handiagoa du. Baina berri on bat eman behar dizuet, eman

DAVID QUINTAS



Erne eta adi ibili behar gara antolakuntza sozial koerantzukizun berri bat bermatzen duen eredu sozial berri baten eragile eta sustatzaile izateko, sozial eta kulturalki berriak eta irekiak diren definizioak eraikitzeko, emakumea, gizona edota norberak izan nahi duenaren esanahia hesitzen ez dutenak, aukera berdintasunetik eta askatasunetik eginda.

nahi dizuet: krisi-uneak, aldaketa eta egokitasun garaiak dira. Horretarako, erne eta adi ibili behar gara antolakuntza sozial koerantzukizun berri bat bermatzen duen eredu sozial berri baten eragile eta sustatzaile izateko, sozial eta kulturalki berriak eta irekiak diren definizioak eraikitzeko, emakumea, gizona edota norberak izan nahi duenaren esanahia hesitzen ez dutenak, aukera berdintasunetik eta askatasunetik egindako bakoitzaren benetako hautaketatik.

Zaila? Bai noski, baina iraultza ez da inoiz erreza izan, iraultza feminista ezta ere, amaigabea oraindik, gure buruak, ingurunea eta harremanak modu ezberdin batean ikusteaz jaio dena.

Gure bizitzan zehar ikasteko aukera dugulako zorrea dugu gizakiok, sozializatzeko eta birsozializatzeko, eta gure burua behin eta berriro eraikitzeko. Eraiki dezagun ba, aniztasuna errespetatu eta berdintasunagatik apustu egiten duen identitate berrietan oinarritutako gizarte berri bat.

Emakume eta gizonen arteko ezberdintasuna errealitate unibertsala da eta gizarte guztietan ematen da modu eta maila batera edo bestera, zenbait lekutan ematen den berdintasunezko gizarte batera abiatzeko aurrerapenak, beste batzuentzako bultzada bat suposatzen duela. Esperientziak trukatzeari ari gara zentzu guztietan, Latinoamerikatik Europara, Europatik Asiara, Afrikatik Latinoamerikara eta alderantziz. Batzuk besteengandik ikasiz, gure postulatuak indartzeko aukera emango diguten sareak sortuz eta elkartasunak eraikiz, boteretsuak izango gara postulu hauek defendatzen ditugun lekuetan, emakume eta gizon asko daudelako borrokan aukera berdintasunaren printzipioen alde eta hau errealitatea izan dadin, bakarrik ez gaudela esan dezakegu beti.

Utzi iezadazue ba, Mexikoko Mintegitik ekarri nituen bi esaldiekin bukatzea: “kopiatu daiteke” eta “entzutean, ikasteko arriskua dugu”.

Bidean elkar ikusten jarraituko dugu

Hiru urte eta erdiko kudeaketa orain bukatzen da. Badakigu Emakundeko zuzendaritzara heldu ginenean jende askok egingo genuenari buruzko itxaropen handiak zituela, eta hori erantzukizun handia izan zen. Itxaropen guztiei erantzun diegula esatea zentzugabea izango litzateke, baina jakin badakigu tarte zabala dagoela itxaropenak betetzearen eta etsipen mingotsaren artean. Eta bide erdian geratu izana espero dugu.

Ziurtatu dezakeguna da gogor lan egin dugula. Dikeak eraiki behar izan ditugu jasandako uholde ezberdinetatik babesteko, eta ahalegin handiarekin defendatu behar izan dugu denon artean lortutakoa: barruan geundenak eta kanpoan zeudenak, akademian, mugimendu sozialetan... Garai zailak bizi ditugu eta, edonola ere, elkar ikusiko dugu gizarte berdintsuago eta, azken finean, justuago baten aldeko bidean

Gero arte

Maria Silvestre,
Emakundeko Zuzendaria

Arantxa Elizondo,
Emakundeko idazkari nagusia



«El Salvadorreko emakumeek gure eskubideak odolarekin lortu ditugu»

Hiru aldiz jaio beharko ginatke Lorena Peñak izandako bizipenak berdintzeko. Lorena Peñak klandestinitatean Rebeca Palacios eta Nadia Palacios izenak erabiltzen zituen. 1994tik aurrera El Salvadorreko Batzar Legegileko diputatua izan zen FMLN-en eskutik. Hamabi urtez gerrillaria izan zen eta 2.000 borrokalari izan zituen bere agindupean Askapen Nazionaleko Indar Herritarren komandante zenean. Bake-negoiazioetan aktiboki parte hartu zuen, Mélida Anaya Montes Emakumeen Mugimendua sortu zuen eta denbora izan zuen ama izateko, bere memoriak liburu batean idazteko eta mendira ihes egin baino lehen hasi zuen Ekonomia karrera amaitzeko. TESTUA: CARMEN RUIZ DE GARIBAY — ARGAZKIA: DAVID QUINTAS

Nire zoriontasuna nire herrialde gizatar eta solidarioaren eraikuntzari lotuta dago, zeinarengatik hainbat eta hainbat gizon-emakumek bizia eman duen, eta lotura hori ezin daiteke desegin” baieztatzen du 56 urteko emakume positibo eta ausart honek, hain zuzen ere, beste alderdi batzuetako emakumeekin bat egiteko eta berdintasuneko proposamen politikoak aurkezteko aditua denak. Baina feminismo aktibo honetara heltzeko Lorena, Rebeca eta Nadiak prezio pertsonal oso altua ordaindu dute eta prozesu intentsua bizi izan dute, herriak bizi izan duen prozesuarekiko modu paraleloan.

“1992an sinatu genituen bake-hitzarmenaren ondoren demokrazia ordezkatzailerari bide eman zion erreforma politiko sakona egon zen El Salvadorren. Hauteskunde libreak egon ziren eta ordezkari politikoan aniztasuna. Testuinguru horretan iristen naiz ni politika-jarduerara FMLN-etik (Frente Farabundo Martí para la Liberación Nacional), laburbiltzen du Lorenak, eta ondokoa gehitzen du: "Ez diot gerrillari ezta alderdiari uko egin, nire herriaren eta alderdiaren eraldaketa-prozesuaren parte naiz".

Hamabi urtetan, berak eta beste hainbat emakumek gerran aktiboki parte hartu zuten. Lorenak gerra horrela

definitzen du: “eraldaketarako bidea zen eta ez printzipio moral bat, generoaren ikuspuntua ez zen kontutan hartzen”. Baina bake-hitzarmenak sinatu bezain laster, beste borroka odolgabe bat hasi zen: "Desmobilizazio garaian, Nazio Batuak kalkulatu zuen emakumezkoak FMLN-ren indar borrokalariaren % 35 ginela. Oso parte-hartze nabarmena izan genuen gerran baita bakearen eraikuntzan ere, eta negoziazioen azken-txanpan feminismoari buruz hausnartzen hasi ginen. Guk argi ikusten genuen gerran praktika sexista, matxismoa eta diskriminazioa ematen zirela, baina ez bakea iritsi zenean bezain sakon. Gerra hain dramatiko zenean, diktadura militarren ekintzak, bonbardaketak, lur suntsituaren politika, heriotzako eskuadroiak... egoera hain zen basatia, egoerak berak horretan zentrarazten zintuela. Hala ere, bakearekin genero-indarkeria ez zen gelditu eta hortxe hasi ginen gauzak zalantzan jartzen. Gainera, emakume gerrillariak bizitza zibilera birmoldatzerakoan lehen hain argiak ez ziren desberdintasunak azaleratzen hasi ziren. Horrek eraman gintuen garai hartako emakume-erakundeekin elkartzera, haiek gogoeta guk baino aurreratua baitzeukaten. Erakunde feministak ziren. Horregatik Clara Murguialdayk erakutsi zigun guztia hainbeste eskertzen

dut. Clara El Salvadorren zegoen eta urte batez ikastaroa borondatez eman zigun. Ostiralero elkartzen ginen eta genero-ikuspegi alfabetatzen gintuen eta arazoa aztertze eta proposamen politikoak planteatzeko oinarriko kategoriak eman zizkigun".

Lorenaren esanetan bake prozesuetan emakumeen parte-hartzerik gabe "armen bakea iristen da, baina ez etxeko bakea ezta bake soziala ere.

Premisa horiekin, Lurren Transferentzia Planean lan egiten hasi zen. "Emakumeak zerrendetan sartzea hitzartu zen eta senarrak alde batera utzita lurra beraiei esleitzea. Genero-ikuspegi ematen hasi ginen borrokalarien birgizarteratze programetan, eta ondoren FMLN barruan eztabaida bat egon zen emakumeen parte-hartze politikoaren kuota ezar zedin baita generoaren politika instituzionala ere. Hori 94an lortu genuen. Diputatua izatera heldu nintzenean iruditua zitzaidan beharrezkoa zela ni konprometitzea, eta emakumeen aldeko legeriaren gaia nire gain hartzea. Gaur egun, emakumeen inguruan dagoen legeria guztia feministak egindako proposamenei eta emakume legegile aurrerakoiei esker lortutakoa da. 1997an Aurrekontuaren Komisio Legegile eta Berezian sartu nintzen eta egiaztatu nuen funts publikoen ehuneko bata baino gutxiago inbertitzen zela emakumeetan".

EMAKUMEEN ARTEKO ITUNAK

Alderdi politiko guztietako emakumeen arteko itunei esker, Emakumeen Talde Parlamentarioa (GPM, gazteleraz) sortu zen, lau helburuen inguruan lana antolatzeke plana ezarri zuena: Emakumeentzako Indarkeria gabeko Bizitzarako Lege Integrala, 2010ean onartu zena; Berdintasuna, Ekitatea eta Emakumeen kontrako Diskriminazio Legea, guztien adostasunarekin onartua; 2011n lortutako genero ikuspegiaren ezarpena Aurrekontu Nazionalan, eta GPMren indartzea eta instituzionalizazioa. Gainera, bere familian barne indarkeria eragiten zuen diputatu bat kargutik kentzea lortu zuten diputatu emakumeek eta une hauetan, beste bat epaitzen ari dira arrazoi berdinagatik. Gizonezkoek beren alaben edota semeen aitzak ez direla frogatzeko ardurazko izateko familiako kode prozesalaren erreforma, eta lakak arautu egiten zituen zonalde frankoen

klausula sozialaren onarpena dira, beste lorpen batzuk.

"Nire herria hau baino polarizatuago dagoela uste dut, eta hala ere, ezkerreko eta eskuineko emakumeak zenbait akordio lortzen ari gara guztiengan eragina duten gai konkretu batzuetan. Etsaiak izan gaitzake beste gai batzuetan, eta zenbait elkarrizketetan gaizki tratatzen gara gure artean. Emakumeari buruzko aurrekontuetarako genero ikuspegi bat eman behar dugunean, arazorik gabe akordioetara iristen gara, baina aberatsi zergak igotzea proposatzen dugunean, haiek ez daude ados".

Nazio Askapenerako Farabundo Marti Fronteko (FMLN) 20 emakume komandanteetatik (fronteak ehun bat izan zituen gizon eta emakumeak batuz), bostek bakarrik iraun zuten bizirik: "El Salvador-eko emakumeak gure eskubi-deak lortzeagatik odola eman dugu eta garrantzitsua da belaunaldi berriek hau jakitea, 40, 30 eta 20 urte bitarteko emakume buruzagi gehiago egon daitezten beraien artean ordezkatzeko. Emakumeok, gure lidergoak sustatu behar ditugu".

BI GAI LATZ

Abortuaren despenalizazioa zintzilik dagoen gaia da, ezkontza homosexualen legalizazioarekin batera: "Abortuaren gaian lanean dihardun emakume talde bat dago eta gu horrekin bat gatoz, baina ez dugu Emakumeen Legebiltzarreko Taldeak bere gain hartzea lortu. Hala ere, osasun sexualari eta ugaltze-eskubi-deei buruzko lege berri bat atera nahian ari gara. Ez dakit noraino iritsiko garen, baina susmoa dut gerturatuko garela. Guk, osasun publikoko arazo bat bezala aztertua izatea nahiko genuke zigortua ez izateko. Ez dut uste despenalizazioa iritsiko garenik baina abortu terapeutikoa lortzea espero dut, eta hori aurrera-pen bat da".

Gay eta lesbianen arteko ezkontzen onarpenari dagokionez, bere alderdiak debekatzeko erreforma gelditua duela azaltzen du Lorenak, eta emakumeek, "gure" gizonek apezpikuarekin hitz egitea lortu dute. "Ezkontza hauen debekatzearen alde bozkatzeko kontzientzia arazoak eta filosofikoak zituztela esan zioten, eta aniztasuna errespetatu behar zela. Gure alderdiak honi buruz jarrera garbia du, baina eskuinak gai hori manipulatzeko jarraitzen du eta emakumeak ez daude abangoardian jarrera desegoki horretan, oraindik ez dute argi eta garbi horren aurka jartzeko ausardiarik".

SALVADORTAR IRAULTZAILE BATEN BIZITZAKO ZATIAK

1955: San Salvadorren jaio zen tradizio liberal demokratikoko erdi-mailako klaseko famili batean. Alaba gazteena da eta anaia bat eta bi ahizpa ditu.

1973: Unibertsitatean ikasten hasiko da, enpresa batean lan egingo du kutxazain gisa eta hiri-gerrilla klandestinoan hasiko da.

1974: Gerrillaria ere den Hernán Solórzanoekin (Dimas Rodríguez-ekin) ezkonduko da, Vladimir bere semea jaiko da eta bikotea klandestinitatera pasako da.

1975: Vladimir Angelita bere amaren ardurapean utziko du.

1975: Gerrillan zeuden Felipe bere anaia, eta horren emaztea, Gloria Palacios, poliziarekin izandako liskar batean hilko dituzte.

1979: Beirutera doa Palestina Askatzeko Erakundeari (OLP, gazteleraz) armak eskatzera.

1980: Mendebaldeko frentera arduradun bezala bidaliko dute Nadia Palacios-en izenpean.

1981: Militarren diktadurak, jada alaba bat duen eta haurdun dagoen Ana Margarita bere ahizpa desagerraraziko du.

1981: Bere aita, Anselmo ezizenekoa, bere agindupean egongo da.

1982: Gerrillari komandante-gradua lortuko du.

1986: FMLN, Nazio Askapenerako Farabundo Marti Fronteko kapitaina den Virginia bere ahizpa, borrokan hilko da, hil ondoren komandante izendatua izango dena.

1987: Ana Virginia izena jarriko dion alaba bat izango du.

1988: Familiaren zati bat bilduko du Managuan, eta Vladimir eta Ana Virginia bere seme-alabetaz arduratuko da, baita, adoptatu duen Ana Margarita bere ahizparen alabaz ere, Adriana. Mendebaldeko Frentearrekin elkartuko da berriro.

1989: Hernán Solórzano (Dimas Rodríguez) bere senar ohia, eta Askapenerako Indar Herritarren bigarren arduraduna, aire-eraso batean hilko da.

1990: Bake hitzarmenen negoziatzaile FLMN, Nazio Askapenerako Farabundo Marti Fronteko Batzorde Politikoa Diplomatiako kide izendatuko dute.

1992: Chapultepeckon (Mexiko) bake hitzarmena sinatuko da.

1994: Asanblada Legegilearen diputatu nazional hautatua izango da.

2008: Erdialdeko Amerikako Legebiltzarreko lehendakariorde izendatuko dute.

2009: Emakumeen Legebiltzarreko Taldeko lehendakari zena bere gain hartuko du.

2009: "Retazos de mi vida, testimonio de una revolucionaria salvadoreña" liburu autobiografikoa argitaratuko du.



BERDINTASUN-POLITIKAK BULTZATZEKO NAZIOARTEKO BILTZARRAREN ONDORIOAK: KOPURUAK, HITZAK ETA PARTE-HARTZAILE GARRANTZITSUEN IZENAK

Berdintasun-Politikak bultzatzeko Emakundek 2012ko urriaren 17an, 18an eta 19an Euskalduna Jauregian, Bilbon, antolatutako Nazioarteko Biltzarrean izandako hiru saio trinkoetara egunero 400 pertsona baino gehiago joan da. Arantxa Elizondok, Emakundeko idazkari nagusiak, azken parte-hartzean kopuruei, hitzei eta esaldiei buruz egindako laburpenak balio dezake Biltzarraren ondorioak ateratzeko.

ARGAZKIAK: DAVID QUINTAS

PARTE-HARTZAILE GARRANTZITSUAK—

Pertsona garrantzitsu asko pasa da Biltzarretik, hala nola erakundeetako ordezkariak, arlo ezberdinetako administrazioeko emakume teknikari eta arduradunak, unibertsitateko emakumezko irakasleak eta Asiatic, Ipar Ameriketatik, Hego Ameriketatik, Afrikatik eta Europatik etorritako ekintzaile feministak. Hauexek dira esaldi eta ideia nagusienak.

VIRGINIA MAQIEIRA-k, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Antropologia Sozialeko irakasle titularrak, genero-berdintasunaz eta arriskuaren gizar-teaz hitz egin zuen. Desberdintasuna

patriarkatuaren oinarria da, eta horrek arrisku endemikoak sortzen ditu emakumeentzat. Badugu zilegitasun moral, araugintzakoa eta politikoa emakumeen giza eskubideengatik borrokatzeko. Oro har esan dezakegu genero-itsutasuna analisisetan eta ikerkuntzetan izendatzaile komuna dela, eta ondorioz ikusezinak bilakatzen direla batetik, emakumeen esperientziak gaurko gizarteen dinamiketan, eta, bestetik, feminismoak egiten dituen ekarpenak emari teoriko eta politiko gisa genero-sistemen azterketan. Genero-sistema hori botere- eta desberdintasun-sistema bat bezala aztertzen da.

AMAIA PÉREZ OROZCO-k, ekonomialari feministak eta Madrilgo Complutense

Unibertsitatean Nazioarteko Ekonomia eta Garapenean doktorea denak, «bizitzaren jasagarritasuna» pertsonen behar material eta afektiboaren multzoa dela esan zuen. "Sistema sozioekonomiko bat eraiki behar dugu ardurak erdian jarritz", gaineratu zuen. "Krisi hau ez da ebazkarria garapen hegemonikoa duen ereduaren esparruan, hortaz, bi galdera egin behar dira: zer da bizitzea merezi duen bizitza bat, eta nola antolatu behar dugu horretarako baldintzak jartzeko erantzukizuna kolektiboki onartzeko.

GLORIA BONDER-ek, FLACSO-Argentinako Genero-, Gizarte- eta Politika-saileko zuzendariak, hitz egin zuen teknologia berrien erabileraz eta bere

HITZAK—

BILTZARREAN PARTE HARTU DUTENEN AHOTAN BEHIN ETA BERRIRO AGERTU DIREN HITZETAKO BATZUK

HAUEXEK IZAN DIRA: KRISIA, SINERGIA, SAREAK, ITUNAK, ADOSTASUNAK, AGENDA, MUGIMENDUA, FEMINISMOA, LEGEAK, ARAUAK, ARRISKUA, BELDURRA, BIOLENTZIA, PATRIARKATUA, MISOGINIA, ERANTZUKIZUN KOLEKTIBOA, LAIKOTASUNA, FUNDAMENTALISMOA, DEMOKRAZIA KOSMOPOLITA, ELKARTASUN KOSMOPOLITA, ZAINTZAK, BIZITZA ONA, BIZITZAREN JASANGARRITASUNA...

analisiaz. Interneten nago, nire burua adierazten dut, baina entzuten al naute? Erakusten dut, baina partekatzen al dut? Eztabaidatzen al dut?, proposatzen al dut?, ezer berririk sortzen al dut? Eta batez ere, eskatu zuen IKT-en potentziala ez dadila geldiarazlea izan baizik eta bultzatzailea.

WASSYLA TAMZALI-k, feminista aljeriarra, idazlea eta UNESCOko Emakumeen Eskubideen zuzendari ohia denak, erreboluzio arabiarretan eta elkartasun kosmopolitan sakondu zuen. Askatasuna eraikuntza bat da, abentura bat, nortzuk garen jakiteak boterea ematen du eta nahi dugun edozer izan gaitzkeela sentiarazten digu. «Bakarrik ezin gaitzke libreak izan. Sareak sortzeko beharra dugu».

CHRISTINE EPOLUKE-k, Afrikako Emakume Ministro eta Parlamentarien Sareko (RDC-etako) lehen presidenteordeak, demokraziaren eta berdintasunaren arteko lotura azpimarratu zuen. Legeen beharraz hitz egin zuen. Egiten duten guztian mugatuta dauden emakumeak, zer izan behar duten eta zer egin behar duten jakiteko ikuspuntu soziokulturaletik kontrolatuta daudenak.

KATE LAPPIN, Asia-Pazifikoko Emakumeen, Legearen eta Garapenaren (APWLD-aren) gaineko Foroko eskualdeko koordinatzailea. What do you do?, galdetzen du, eta emakumeek erantzuten dute: baliabideetarako, lan duinerako, bakerako, ahotserako sarbidea; erabakietan parte hartzea.

LORENA GUADALUPE PEÑA-k, El Salvadorreko Legebiltzarreko diputatuak, ezkerrean eta eskuinaren arteko aliantza baten adibidea eman zuen. Elkarlana izan zen, emakumeen artean hitzartutako agenda. «Feminismoa esku artera etorri zitzaidan esperantza izaten jarraitzeko».

ROXANA DELGADO-k, NBE Emakumeak El Salvadorreko eta Emakumeentzako Hiri Seguruak Programako koordinatzaileak, emakumeen arteko konplizitateaz hitz egin zuen baita emakume-mugimendua-

ren babes nekaezinari esker posible izan diren programez ere.

PAOLA VILLA-k, Trentoko (Italiako) Unibertsitateko Ekonomia irakasleak, EB-ko funtsezko printzipiotzat hartu zuen berdintasuna, eta bi helburu aipatu zituen: berdintasuna justizia soziala bezala, eta berdintasuna eraginkortasun ekonomikorako tresna bezala. Hauxe galdetu zuen: krisiak EB-ko agenda aldatu al du? Bai, albo batera utzi du.

MARÍA BUSTELO-k, Madrilgo Complutense Unibertsitateko Politika Publikoen irakasleak, Europar dagoen desberdintasuna aztertu zuen: ikuspegi integratzaile baterantz duen bilakaera. Interseksionalitatea: desberdintasun ezberdinez gain desberdintasun arteko interakzioak kontuan izan behar diren tokia. Nabarmendu zuen desberdintasun guztietarako «taila bakarra» erabiltzeak sektoreen arteko lehiaketa sustatzen duela.

ROSA ESCAPA, CELEM -Emakumeen Europako Lobbyaren Espainiako koordinadorearen lehendakaria- feminismoaren hiru zutabeen formula klasikoari buruz aritu zen, belusako hirukia (Busteloren hitzetan): Emakumeen Mugimendua, Feminismo Akademikoa, Feminismo Instituzionala. Guztiak gaude hemen.

JOSÉ ÁNGEL LOZOYA, Berdintasunaren aldeko Gizonen Foroko kideak, gizonezkoetatik abiatuz garatu zituen estrategiak. Lehen elkartasuna azaltzen bazuten ere, orain bere agenda dute.

TERESA MALDONADO, Filosofiako irakaslea eta Feministalden aktibista feminista, modernitate likidoari buruz aritu zen, baina batez ere, publikoa defendatu eta babestearen beharraz: eztabaida publikoa, zerbitzu publikoa eta jabetza publikoa.

BEGOÑA SAN JOSÉ, COMPI- Emakumeen Partaidetza eta Berdintasunerako Antolaketzen Koordinadorako lehendakariak,

KOPURUAK—

LOGISTIKAN **35** PERTSONA,
407 PARTE-HARTZAILE,
17 TXOSTENGILE OSOKO
4 BILKURETAN, MAHAI INGURUAN
4 MODERATZAILE, **2** HITZALDI,
66 KOMUNIKAZIO **4** PANELETAN
ETA **4** KOORDINATZAILE GAIKAKO
SAIOETAN.

mugimendu feminista antolatuaeren bo-
rrokari esker emakumeen eskubideetan
irabazitako lorpen eta aurrerapenak go-
gorarazi zituen.

SUA FENOLL, aktibista feminista eta Madrilgo 15M Feminismos Sol Komisioako parta-
taideak sistema dela eta ez krisi bat, esan
zuen. Aurrezteko, emakumeen eskubideak
erabiltzen ari direla ohartarazi zuen.

SHAMS ABDI, Tunisiako Emakumeen Na-
zioarteko Martxa: “Feminismoa ez dago
alderdi politiko konkretu baten aurka,
sistema politiko, ekonomiko eta sozial
konkretu baten aurka baizik.”

MARCELA LAGARDE, antropologo feminista
eta ONU Emakumeak-eko aholkularia:
“Feminismoa emakumeek modernitatea-
ri emandako ekarpen politiko garrantzi-
tsuena da, eta ekarpen zibilizatzailea da”.
“Legeak soilik nahiko ez badira ere, le-
gerik gabe mundua nolakoa izan daitekeen
antzemateko ahalmenik ez dugu.” “Ema-
kumeak modernitatearen aldekoak gara,
modernitatea gure bizitzetan sartzea lortu
ez dugulako, emakumeak modernitatearen
parte izatearen aurka dauden oztupoak
direla eta. Posmodernak gara ere emaku-
meak, modernitatearen kritikak garelako.
Post da ematen dugun pauso bakoitza, mo-
dernitatea berreraikitzen ari garelako.”



SAIOEN IDEIAK—

RAQUEL RAPOSO, Emakundeko Programen eta Prestakuntza atalaren arduraduna

1. Panela:

GOBERNANTZA

Gobernantza edota gobernu onerantz aurrerapena, prozesu politikoetan genero ikuspegia benetan kontutan hartzen deanean posible izango da bakarrik. Berdintasuneko helburuak ezabatzeko ematen diren pausoak eta sexuaren arabera egiten den datuen sakabanaketaren deuseztapena, emakume eta gizonezkoen artean duen eraginaren neurketa eta ebaluazioarekin batera, gobernu onerantz joateko bidea errazten dute. Mugimendu feministaren presio soziala ezinbestekoa da mainstreaming-erako beharrezkoak diren tresnen ezarpenerako.

CARMEN DíEZ MíNTEGUI, EHUko antropologo eta irakaslea

2. Panela:

BOTERETZEA ETA BALOREEN ALDAKETA

Panel honek hogeita bost komunikazio izan zituen, horietatik hamar, zuzenean entzun ziren. Partaidetza politikoarekin zerikusia duten gaiak garatu ziren; kirola eta jarduera fisikoaren inguruan ematen diren arazoak, batez ere neska eta gazteen artean. Baita, babes politikoa eskatzen duten emakumeen baliabide ekonomikoetara edota legezko eraikuntza mediatikora bereizitako sarbidea ere. Eztabaida interesgarria izan zen eta konklusio gisa, boteretze prozesuetan aurrerapenak ematen ari direla azaldu zen, baina argi geratu zen oraindik lan handia dagoela aurretik.

RAQUEL ROYO, Soziologiako doktorea eta Deustuko Unibertsitateko Emakumeen Kontrako Indarkerian Esku Hartzeko masterraren zuzendaria

3. Panela:

ANTOLAKETA SOZIAL ERANTZUNKIDEA

Familia eremuan, pertsonal eta laboralean, mugatu gaituzten ezberdintasun boteretsuetara hurbildu gara, baina baita banakako eta taldeko aldaketa prozesu itxaropentsuetara ere. Aldaketak aurrera eramateko gu ere aldatu behar gara. Bere denbora duten emakumeak eta zaintzen duten gizonak, bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jarri. “Mundua ezin da aldatu inor eragotzi gabe” esaten duen esaldia gogora ekartzen dugu, beraz, jarrai dezagun ardura hartzen eta eragozten.

BILTZARRAREN ILDO NAGUSIAK—

- Emakumeen agenda berdintsua da alde guztietan.
- Beharrezkoa da emakumeei galdetzea, ahotsa ematea.
- Momentu ezberdinetan eraiki zen eta orain hau babestu eta zaindu behar da. Begoña
- San Jose-ren hitzetan, «ezin dugu feminismoa pilotu automatikoarekin gidatu, koordinatuak aldatzen ari dira eta».
- Beharrezkoa da legeak zaindu eta betetzea.

MARIOLA SERRANO, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero-Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako burua.

4. Panela:

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Espainiar legedian genero-indarkeriari buruzko kontzeptua aldatzea komenigarria izango litzateke eta Nazio Batuetako Emakumearen aurkako Indarkeria ezabatzeari buruzko Adierazpena egokitu.

Bake eta segurtasuneko gaietan, emakumea kategoria unibertsala ez dela eta esperientzia bera partekatzen duela ez da ahaztu behar. Emakumeak asko gara, ez bakarra.

Berdintasunerako gizonen erantzukizunean eragiteko beharra dugu. “Patriarka-labirinto”-ko eredia tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak gehiegizko erlazioetatik ateratzeko dituzten zailtasunak aztertze lagunduko digula uste dugu, hala nola, amodio erromantikoarekin erlazioetatutako mito multzo bezala “amodioaren indarra” deiturikoaren papera aztertze. Mehatxu eta beldurgabeko eszenatoki batean, berdintasunak azkarrago aurrera egingo luke denbora eta eremu publikoaren betetzean. Horretarako, erakundeen konpromisoa ezinbestekoa da.

Aldizkariaren edizio digitalean, eduki gehiago: www.emakunde.euskadi.net/revista

• Enpresa pribatu edo herri erakundeek berdintasunaren alde burututako ekimenak. • Jarduera interesgarrien agenda. • Beste emakumeekin konektatzeko atala. • Iritzia emateko lekua.

Edizioa: Emakunde. Koordinazio teknikoa: Kazeta 5. Diseinua: Didart. Inprimaketa: EPS. Lege Gordailua: VI 465-2010